– Dipt. Bizk., carp. 4-d
Cat.

4 feuilles

2

# La Prophétie de Jonas

(Version guipuzcoane)

par Uriarte

en guip.
par Uriarte.
Bonap.-soigné.
inéd.

ms. 84, Collins



+

# Jonasen profecia.

## Lembicico capitulia.

1. Eta Jonas Amatiren semeari itz eguin cion Jaunac, esaten zuela:

2. Jaiqui zaite eta zoaz Niniveco erri andira, eta an predicatu ezazu: ceren bere gaiztaqueriyen deadarra eldu da nere aurreraño.

3. Eta jaiqui zan Jonas, Jaunaren esana eguiteari utzi-ta Tarsisera igues eguiteco, eta jechi zan Jopera, eta arquitu zuen Tarsisera cijoan ontzi bat: eta pagatu zuen bere eraman saria, eta sartu zan bertan beraquin, Tarsisera joateco Jaunagandic iguesi.

4. Baña Jaunac bialdu zuen aice andi bat itsasoaren gañera, eta jaiqui zan itsasandi bat, eta ontzia zatitua izateco irriscuan cegoan.

5. Eta itsasguizonac beldurtu ciran, eta bacoitzac bere Jaungoicoari ots eguin cion: eta itsasora bota zuten ontzico zama, arindu cedin bere pisutic: Jonas berriz jechia zan ontziaren barrena, eta lo gogorrean cegoan.

6. Eta alderatu zan beragana pilotoa, eta esan cion: Nola zaude, zu orrela lotan? Jaiqui zaite, eta zure Jaungoicoari ots eguin zayozu, gurequin oroitu nai ote dan, eta galdu ez gaitecen.

7. Eta elcarri esan cioten: Atozte, eta choch
eguin dezagun, eta jaquin dezagun cergatic etorri
zaguna gaitz au. Eta choch eguin zuten: eta suertea
Jonasen gañera erori zan.

8. Eta esan cioten: Adiraci zaguzu, cergatic
gaitz au guertatu zaguin. Cer languintzacoa cera?
Nongoa cera, eta nora zoaz? Cer errenutacoa
cera zu.

9. Eta esan cien: Hebreotarra naiz ni,
eta ceruco Jaun Jainco, itsasoa eta lurra eguin
cituenaren beldur naiz

10. Eta chit beldurtuta gueldituciran
guizon ayec, eta esan cioten: Cergatic au eguin dezu?
(ceren guizon ayec ezagutu zuten Jaungoicoaren
iguesi cijoala, bere aguindua ez eguitearren,
ceren berac adiraci cien.)*

11. Eta esan cioten: Cer eguingo degu
zuregan itsasoa baretu daguigun? Ceren itsasoa
goratuaz eta arrotuaz cijoan.

12. Eta esan cien: Artu, eta
itsasora bota nazazute, eta itsasoa baretuco
zazute: ceren nic ongui daquit nigatic itsasoa
chit aserretua jarri zazutela.

13. Eta arraunean eguiten zuten
itsasguizonac leorrera biurtzeco, baña ecin
ciran: ceren itsasoa gora cijoan, eta arrotuaz
beren gañean.

14. Eta Jaunari ots eguin
cioten, eta esan zuten: Erregututzen dizugu, o
Jauna, ez gaitzazula illeraci, guizon onen erioza

eman diogulaco, eta culpa gabeco odolari etzayozu erorieraci gure gañera: ceren zuc, Jauna, eguin dezu, nai izan dezun becela.

15. Eta eldu cioten Jonasi, eta itsasora bota zuten: eta itsasoa bereala baretu zan.

16. Eta guizon ayec Jaungoicoaren beldur andi bat artu zuten, eta Jaunari doañac esqueñi ciozcaten, eta votoac eguin cituzten.

---

Bigarren capitulua.

1. Eta Jaunac cencan prestatuta arrai andi bat, ceñac Jonas iretsi zuen: eta egon zan Jonas arrayaren sabelean iru egunean, eta iru gabean.

2. Eta arrayaren sabeletic erregutu cion Jonasec bere Jaun Jaincoari,

3. Eta esan zuen: Nere naigabean Jaunari deitu nion, eta aditu ninduen: sepulturaren barrendic deadarrez ots eguin nuen, eta aditu cenduen nere boza.

4. Eta bota ninduzun itsasoaren barrenenera, eta urac inguratu ninduten: zure giraboilla guztiac, eta zure baga guztiac igago dira nere gañera.

5. Eta nic esan nuen: Aurtiquia izan naiz zure beguien aurretic: alaere oraindican berriz icusico det zure templo santua.

6. Urac inguratu ninduten animaraño: osiñac inguratu ninduen, itsasoac estali zuen nere burua.

7. Jechi nintzan mendien ondoetaraño: lurreco morrolloac ichiaz jarri ninduten betico: baña zuc, nere Jaun Jaincoa, gordeco dezu usteltasunetic nere vicia.

8. Nere animac iragotzen cituen antsiaen artean, zucendu naiz zugana, ó Jauna: allegatu dedin zugana nere erréguia zure eliza santura.

9. Arroqueriac alperric gordetzen dituztenac, utziten dute bere urricaltasuna.

10. Baña nic esqueñico dizquizut doañean alabanzazco cantac: cumplituco diozcat Jaunari, nere osasunagatic eguin diozcadan Voto guztiac.

11. Eta Jaunac esan cion arraiari, eta onec gombitatu zuen Jonas leorrean.

---

## Irugarren capitulua.

1. Eta Jaunac bigarren aldiz itz eguin cion Jonasi, esaten ciola:

2. Jaiqui zaite, eta zoaz Ninivéco erri andira, eta an predicatu ezazu nic esaten dizudana.

3. Eta jaiqui zan Jonas, eta joan zan Ninivera Jaunac aguindu cion becela: eta Ninive zan erri andi bat, iru eguneco bidea cercana.

4. Eta asi zan Jonas errian sartzen egun bateco bidean: eta deadar eguin zuen, eta esan zuen: Emendican berrogei egunera Ninive desegiña

Jonas guip. 2



izango da.

5. Eta Ninivetarrac siniztu zuten Jaungoicoagan; eta predicatu zuten baraüa, eta sayoz jantzi ciran andienetic chiquieneraño.

6. Eta allegatu zan berria Niniveco erreguearana: eta bere tronutic jaiqui zan, eta beragandic kenta cituen bere sñuecoac eta sayoz jantzi zan, eta eseri zan autsean.

7. Eta deadar eguin zuen, eta esan zuen Niniven, erreguearen eta bere principeen aguinduz, esaten zuela: Guizonac, eta zamariac, eta idiac, eta abereac ez bezate ecerere jan: eta ez biter ere barzcatu, ezta uric ere ez bezate edan.

8. Eta guizon ta abereac sayoz jantzi biter, eta chit gogotic ayec ots eguin bizayote Jaunari eta alde eguin beza guizonac bere bide charretic eta beren escuetan danden obra gaiztoetatic.

9. Norc daqui onela aldatuco ote duen Jaunac bere erabaquia, eta barcatuco ote digun. eta bere asserrearen sumintasuna bigunduco ote dan, eta onela galdu gabe gueldituco ote gueran?

10. Ycusiric bada, Jaungoicoac eguiten cituzten obrac, nola beren bide charretatic alde eguin zuten, erruquitu zan; eta etzicozcaten bialdu erabaquita cencan gaitzac.

---

# Laugarren capitulua

1. Eta Jonasec chit naigabe andia idunqui zuen, eta aserratu zan.

2. Eta otoiz eguin cion Jaunari, eta esan zuen: Erregututzen dizut, ó Jauna, esan zadazula: gauza onen beronen beldur ez al nintzan ni, oraindican nere errian nengoala? Argatic aurreratu nintzan Tarsisera igues eguiten. Ceren nic ongui daquit zu cerala Jaungoico viotzberaa, eta urricaltsu, paciencia andico, eta biguintasun ascoco, eta bécatuen barcatzalle bat.

3. Eta orain, Jauna, erregututzen dizut, quendu dizadazula vicia: ceren onezquero neretzat obe da iltzea, vicitzea baño.

4. Eta Jaunac esan cion: Aserratzeco arrazoya dezula uste al dezu?

5. Eta Jonas erritic atera zan, eta erriaren sortaldeco atearen aurquez eseri zan: eta chaola bat eguin zuen an, eta bere azpian itzalean eseria egon ci zan, erriari zer guertatuco ote citzayon icusi artean.

6. Eta Jaun Jaungoicoac prestatu zuen untz bat, eta Jonasen buruaren gañera igo zan, bere buruari itzala eguin, eta bera estaltzeco, ceren chit necatua cegoan: eta Jonasec untz hura gatic poz chit andia idunqui zuen.

7. Eta biaramonean eguenzentian bialdu zuen Jaungoicoac ar bat, ceñac ortzca eguinic untzari, igartu zan.

8. Eta eguzquia irten zanean aguindu zuen Jaungoicoac atera cedilla aice bero eta erreguille bat: eta eguzquiac jotzen zuen Jonas bere buruan eta erretzen zan: eta bere anima guztitic escatu zuen eriotza, eta esan zuen: Obe da neretzat iltzea, vicitzea baño.

9. Eta esan cion Jaunac Jonasi: Uste al dezu ona dala zuc untzagatic dancazun aserrea? Eta esan zuen: Ona da nere aserrea, eriotza opa izateraño.

10. Eta Jaunac esan zuen: Zuc dancazu untz baten, beragatic lanic batere eguin ez dezunaren, eta aci ere zuc eguin ez diozunaren damua: bada gau batean aci da, eta gau batean galdu da.

11. Eta ez ote diot nic barcatuco Niniveco erri andiari, ceñean dauden emen eta oguei milla guizon baño gueyago, ez daquitenac ceñ dan beren escuico escua, eta ceñ ezquerrecoa, eta abere asco?

# La Prophétie de Jonas en biscayen

(Traduction d'Uriarte)

+

# Jonasen profecija.

## Lelengo capituluba.

1. Eta Jaunac berba eguin entsan Jonas, Amatiren semiari, eta esan entsan:

2. Jagui zaite, eta zuaz Ninivéco uri andira, eta an predicau eguizu: cerren bere gaiztaquerijen diadarrac igon dau nire aurreraño.

3. Eta jagui zan Jonas, Tarsisa igues eguiteco Jaunaren aurretic, eta jatsi zan Joperá, eta aurquitu eban Tarsisa joian ontzi bat: eta pagau eban eruan sarija, eta sartu zan ontzijan, juateco euracaz Tarsisa Jaunagandic iguesi.

4. Baña Jaunac atera eban asse andi bat ichasuan: eta ichasandi icaragarri bat jagui zan, eta ontzija eguan apurtuteco arriscubap.

5. Eta ichasguizonac bildurtu ciran, eta bacochac diadarrez deitu entsan bere Jaungoicuari: eta bota eutubezan ichasora ontzijan ecardezan trastijac, arindu cedin bere pisuba; baña Jonas jatsija zan ontzijaren barrura, eta lo gogorrian eguan.

6. Eta juan zan beragana ontzi gobernarija, eta esan entsan: Celan zagoz zu ain lo gogorrian? Jagui zaite, dei eguijozu zure Jaungoicuari, gugaz gomutau nai ete daben, eta galdu bagaric queditutuen ete garian.

7. Eta esan eutsen alcarri: Ezdube, eta

zotzac atera daiguzan, jaquiteco cegaitic jatorcun
zorigaistotasun au. Eta atera cituben zotzac,
eta urten entsan suertiac Jonasi.

8. Eta esan entsen: Esan eguiguzu, cegaitic
guertau jacu gach au. Ce languintzatacúa zara?
Nunguá zara, eta nora zuaz? Ce erritacua zara zu?

9. Eta Jonasec erantzun entseen: Ni naz
hebreotarra, eta ichasua eta lurra eguin cituzan,
ceruco Jaun eta Jaungoicuaren bildurra daucat.

10. Eta guztiz bildurturic gueldituciran gente
areec, eta esan entsen: Cegaitic eguin dozu au?
(Cegaitic ece, ezagutu eben guizon areec, Jaungoicuagandic
iguesi joiala, cerren berac adierazo entseen.)

11. Eta esan entsen: Cer eguingo etc dogu
zugaz, ichasua baretu daguigun? Bada ichasandija
joian guernago gueitu baguaz.

12. Eta Jonasec erantzun entseen: Eldu eguidazube,
eta bota naguizube ichasora, eta ichasua baretuco
jatsube; cerren nic ondo daquit, nigaitic etorri dala
zuben gañera ichasandi icarragarri au.

13. Bitartian ichasguizonac erremubaz
ciardubea, liorrera biurtuteco; baña ecin ciriaz,
cerren ichasoco olatubac juazán guernago goragó
jaquijaz euren gapian.

14. Eta diadarrez deitu entseen Jaunari,
esaten ebeela: Erregututen deutsugu, ó Jauna, ez
gaitiala galdu, guizon au ilten dogulaco, eta odól
erruba guidari ez eguijozu jausi eraguin gure gañera:
cerren zuc, Jauna, eguin dozu, gura izan dozun
modubaz.

15. Eta eldu eutseen Jonasi, eta bota eben ichasora: eta ichasua baretu zan.

16. Eta guizon areec artu eben Jaunaren bildur andija, eta esquiñi eutseezan oparijac, eta eguin eituebezan votuac.

---

## Bigarren capituluba.

1. Eta Jaunac prestauta eucan arrain andi bat, ceñec irunzi ebazan Jonas: eta egon zan Jonas arraiñaren sabelian iru eguñian eta iru gauetan.

2. Eta arraiñaren sabeletic eguin eutsan Jonasec oraciñua bere Jaun eta Jaungoicuari.

3. Eta esan eban: Neure naibaguian deitu neutsan Jaunari, eta entzun eustan: obijaren barrutic diadar eguin neban, eta entzun cenduban nire boza.

4. Eta bota ninduzun ossinera ichasuaren vijotzera, eta urac inguratu ninduben: nire ganetic igaro dira zure ur gora bera guztijac, eta zure olatu guztijac.

5. Eta nic esan neban: Jaurtiguija izan naz zure beguijen aurretic: baña oraindic barriro bere icusico dot zure elessa santuba.

6. Inguratu ninduben urac arimarañoi; leza baten sartuta icusi naz; ichasuac estaldu dau nire buruba.

7. Jatsi naz mendijen sustraijetaraño, lurreco morollubac zarratu ninduben ~~.....~~ an barruban betico: baña zuc, ó neure Jaun eta Jangoicoa (sic) ateraco dozu nire vicitzia ustelltasuneco lecutic.

8. Nire arimia estututen zanian nire

barrubaz, gomutau nintzan Jaunagaz: eldu dediz zugana nire erreguba zure elessa santura.

9. Alperric arroquerijaco gaucetaz diardubenac ichitez dabe bere errunquitasuna.

10. Baña nic alabanzaco bozagaz Iguingo deutsut esquiñija: pagauco deutsat Jaunari nere osasunagaitic esquiñi dodaz guztija.

11. Eta Jaunac aguindu eutsan arraiñari: eta bvebesaa eban Jonas erriberan.

## Irugarren capitulua.

1. Eta Jaunac bigarrenez berba eguiz eutsan Jonasi, esaten eutsala.

2. Jagui zaite, eta zuaz Niniveco uri andira, eta predicau eguizu an nic esaten deutsudan sermoia.

3. Eta jagui zan Jonas, eta juan zan Ninivera Jaunac esan eutsan leguez: eta Ninive zan uri guztiz andi bat, iru eguneco bidia eucana.

4. Eta asi zan Jonas urian sartuten, eta ibilli zan bertan egun baten, eta diadar eguinic esan eban: Emendic berroguei egunera Ninive izango da deseguiña.

5. Eta Ninivetarrac sinistu eben Jaungoicuagan, eta predicau eben baru eguiteco, eta guztijac andijac eta chiquijac jantzi cituebezan penitencijaco soñecuac.

6. Eta eldu zan barri au Niniveco erreguiagana, eta jagui zan bere tronutic, eta erantzinic bere soñecuac, cilicijoz jantzi zan, eta jarri

zan autsaren garian.

7. Eta emon eutsan diadarrari, eta esan eban Niniveñ bere, eta bere principeen aguinduz: Guizonac, eta zamarijac, eta idijac eta aberiac ez beguije ecerbere jan: eta ez bediz atera bere larrara jatera, eta uric bere ez beguije edan.

8. Guizonac eta aberiac soñeco latz eta maxez jantzi bitez, eta diadarrez ta gogotic escatu beguijue Jaunari, eta ichi beguijo bacochac bere bide charrari, eta euren escuetan daguan gaiztaquerijari.

9. Noc daqui aldatuco ete ditezan Jaungoicuac bere asmuac, eta parcatuco ete deuscun; eta bigunduco ete dan bere aserrearen sumintasuna, eta onelan galdu bagaric gueldituco ete garian?

10. Eta icusi cituzan Jaungoicuac egiten citubezan obrac, eta celan ichi eutsen euren Vicitza charrari: eta errupitu zan, eta ez eutsezan bialdu erabaquita eucazan gachac.

---

Laugarren capitulua.

1. Eta Jonasec artu eban naibague guztiz andija, eta aserratu zan.

2. Eta erregutu eutsan Jaunari eta esan eban: Esan eguidazu arren, Jauna, onessen bilduriz al nintzan ni, oraindic neure errijan nenguala? Orregaitic aurreratu nintzan igues eguiñaz Tarsisa: ceren nic badaquit zu zariala Jaungoico bigun, eta errupior, suffritzalla(?), eta samurtasun andico, eta pecatuben parcatzalla bat.

3. Eta orain Jauna erregututen deutsut,

guendu daguidazula Vicitzia: cerren oba da niretzat erijotzia, Vicitzia baño.

4. Eta esan entsan Jaunac: Sinistuten dozu, erriazoia daucazula aserratuteco?

5. Eta urten eban Jonasec uritic, eta jasri zan urico eguzquialdeco atiaren aurrian: eta eguin eban an chabola bat, eta egon ói zan jarriric bere azpijan gueriz̃pian, icusi artian cer jazoco ete jacon urijari.

6. Eta prestau eban Jaun eta Jaungoicuac untz bat, eta igon eban Jonasen burubaren ganera, guericia eguiteco bere burubari, eta bera estaldutuco, cergaitic ece, guztiz eguan necatuba: eta Jonasec euqui eban poz guztiz andija untz aregaitic.

7. Eta bijaramonian egunsentijaren asieran bialdu eban Jaungoicuac ar bat, eta aguinca eguin entsan untzari, eta igartu zan.

8. Eta Eguzquijac urten ebanian Jaunac urten eraguin entsan asse bero eta erregarri bati: eta eguzquijac jóten eban Jonas burubaren ganian, eta erretan zan: eta escatu eban bere arima guztitic erijotzia, eta esan eban: Oba da niretzat iltia, Vicitzia baño.

9. Eta esan entsan Jaunac Jonasi: sinistuten dozu zuc erriazoia daucazula aserratuteco untzagaitic? Eta esan eban: Erriazoia daucat aserratuta egoteco erijotzia oja izateraño.

10. Eta Jaunac esan eban: Zu zagoz untzaren damuz, cereg̃aitic ez cendubau biarric

eguin, eta ez cenutzan aci eraguin bere: bada gau baten aci zan, eta gau baten galdu da.

11. Eta ez deutsat nic parcatuco Niniveco uri andijari, ceñetan dagozan eun eta oguei milla guizon baño gueiyago, ez daquijenac ceïn dan euren escumaco escubá, eta ceïn ezquerrecua, eta abere asco?